

K3 MODULUA: KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

IKASLEAREN GIDA
HAUR HEZKUNTZA

2026-27

Zentroa: Hezkuntza eta Kirola Fakultatea

Moduluaren izena: Komunikaziorako tresnak

Ikasturtea: Bigarrena

Lauhilabetekoa: Lehenengoa

Koordinatzailea: Iratxe Antonio-Agirre

AURKIBIDEA

1. MODULUAREN AURKEZPENA	3. or.
2. MODULUAREN KONPETENTZIAK ETA GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK	3. or.
3. LANERAKO METODOLOGIA	5. or.
4. LAN-FASEAK	6. or.
5. AURREIKUSITAKO ENTREGAGAIK	8. or.
6. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA ETA KRONOGRAMA	11. or.
7. ERREFERENTZIAK	14. or.

1. MODULUAREN AURKEZPENA

Gaur egungo gizartea eta eskola etengabe aldatzen ari dira. Baliabide digital berriak agertzen dira, irakasteko metodologiak eta konpetentziak berritzen dira, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta haur guztien garapen integrala bermatzeko erronka gero eta garrantzitsuagoa da. Testuinguru horretan, etorkizuneko irakasle gisa prestakuntza sendoa eta askotarikoa beharko duzue. Horretarako, funtsezkoa izango da zuen inguruko errealitate sozial eta kulturala ulertzea, ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartzea eta ikasten ikasteko gaitasuna garatzea. Ikaskuntza ez dugu banakako prozesu hutsa bezala ulertzen; aitzitik, elkarlanean eraikitzen den esperientzia aberasgarria da, zuek izango zaretena prozesu horren erdigunea.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako 2. mailaren hasieran egingo duzue K3 modulu hau, **K3 Komunikaziorako Tresnak** izenburua duena. Beraz, komunikazio gaitasunak garatuko dituzue diziplinartekotasunean honako lau irakasgaiek lagunduta. Irakasgai hauetan lantzen diren edukien, konpetentzien, eta metodologiaren arteko elkarlanak ikuspegi kritikoa, ikerketa-gaitasuna eta komunikazio-konpetentziak modu holistikoa gara ditzazuten asmoa du:

- Haurtzaroaren Psikologia.
- IKTak Haur Hezkuntzan.
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena II.
- Gizarte eta Kultura Ingunearen Ezagutza.

K3 lan modularren helburua **Haur Hezkuntzako Graduko ikasleek komunikazio tresnak ezagutzea, erabiltzea eta etorkizuneko lanbidean beharrezkoa izango duten konpetentzia komunikatiboa garatzea da**, betiere, ikuspegi tekniko-profesional, idatzizko, ahozko, zientifiko eta diziplinartekotik.

Ikaskideekin elkarrekin egingo duzuen diziplinarteko lan honen helburua ez da soilik jakintza teorikoak lantzea. Aitzitik, etorkizuneko haur-hezkuntzako profesional gisa, eskoletako eguneroko errealitatea hobeto ezagutzea, ulertzea eta interpretatzea du xede. Horretarako, **ikerketa-prozesu baten bidez, elkarriketaren eta behaketaren bidez, hurbilduko zarete hezkuntza-testuinguru errealeara, bertan sortzen diren egoerak, harremanak eta komunikazio-praktikak aztertuz**. Lan honen bidez, unibertsitatean ikasten ari zareten edukiak eta ikastetxeetan gertatzen dena lotzeko aukera izango duzue, teoria eta praktika elkarrengana hurbilduz. Helburu hori lortzeko, lau irakasgairen ekarpenak uztartzen dira, hezkuntza-errealitatea ikuspegi osagarrietatik ulertzeko aukera emanez.

2. MODULUAREN KONPETENTZIAK ETA GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK

Diziplinarteko K3 lan honek eskatzen dituen jarduerak eginez gero, hurrengo helburuak eta konpetentziak lortuko dituzue (1. TAULA).

1. TAULA. K3 Komunikaziorako Tresnak Diziplinarteko Lanean Lortuko Dituzuen Konpetentziak eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)

	GIH3	GIH4	GIH5	GIH18
K3 Moduluaren konpetentzia	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Genero berdintasuna	Hizkuntza eta kultur aniztasuna
M1. Ezagutza praktikoa lortzea, haurren egunerokotasun errealtatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz, ikasleen kalitatezko alfabetizazio zientikoa lortzeko.		X		
M2. Harremanek, eta testuinguru soziolinguistikoak zein kulturek garapen holistikoa eta ongizatean izan ditzaketen eraginak ezagutu, balioetsi, horiek sustatzen dituzten ebaluatu eta estrategiak planifikatu.	X	X	X	
M3. Informazio eta komunikazio baliabideak (IKTak, bibliotekak, fonotekak, besteak beste) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.		X		X
M4. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) bi hizkuntza ofizialen komunikazio konpetentziak garatzea, Europako erreferentzia markoko B2 maila lortu arte.				X

K3-Komunikazio Tresnak lanean garatuko dituzuen moduluaren konpetentziek lotura estua dute Garapen Iraunkorrerako Helburuekin. Alde batetik, **M1 konpetentziaren** bidez hezkuntza-errealitatea behatzen, datuak biltzen eta ebidentzietan oinarritutako ondorioak ateratzen ikasiko duzue; horrek zuzenean laguntzen du **GIH 4 Kalitatezko Hezkuntza** sustatzen, etorkizuneko irakasleek erabaki pedagogikoak ezagutzen eta hausnarketan oinarrituta hartzea ahalbidetzen duelako. **M2 konpetentziak**, berriz, harremanen, testuinguru soziolinguistikoaren eta kulturaren eragina ulertzea du helburu; horrela, **GIH 3 Osasuna eta Ongizatea**, **GIH 4 Kalitatezko Hezkuntza** eta **GIH 5 Genero Berdintasuna** bultzatzen dira, haur guztien ongizatea, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzen dituzten hezkuntza-praktikak identifikatzen eta balioesten laguntzen duelako. Bestalde, **M3 konpetentziaren** bidez informazio- eta komunikazio-baliabideak modu kritikoan erabiltzen ikasiko duzue, ezagutza eskuratzeko, ikertzeko eta lankidetzan jarduteko; horrek lotura zuzena du **GIH 4 Kalitatezko Hezkuntzarekin** eta **GIH 18 Hizkuntza eta Kultur Aniztasunarekin**, informazioaren erabilera arduratsua eta ikuspegi anitzen aitortza sustatzen baititu. Azkenik, **M4 konpetentziak** euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna indartzen du, eta, horren bidez, **GIH 18 Hizkuntza eta Kultur Aniztasuna** sustatzen laguntzen du, hizkuntzek pertsonen arteko ulermena, inklusioa eta komunitatearen kohesioa indartzeko duten balioa aitortuz. Horrela, K3 honetan garatuko duzuen ikerketa-lanak ez du soilik ezagutza akademikoa eraikitzen lagunduko; aldi berean, gizarte bidezkoago, inklusiboago eta jasangarriago baten alde lan egiteko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak garatzen ere lagunduko dizue.

3. LANERAKO METODOLOGIA

K3 honetan, eskola-errealitatea ikertuz ezagutuko duzue. Horretarako, **ikerketan oinarritutako (IO) metodologia** erabiliko dugu. Horrek esan nahi du ezagutza ez duzuela soilik irakasleengandik edo dokumentuetatik jasoko; aitzitik, zuek izango zarete galderak egin, informazioa bildu, aztertu, interpretatu eta ondorioak eraikiko dituzuen protagonistak. Etorkizuneko irakasle lanbidean erabiliko dituzuen konpetentziak ez ezik, Haur Hezkuntzako Graduaren amaieran izango dituzuen Gradu Amaierako Lana (GrALa) burutzeko beharko dituzuen konpetentzien aurrendariak ere garatuko dituzue lan honen bidez.

Helburu horri erantzuteko, lanak **ikerketa kualitatibo esploratzailearen** planteamendua jarraitzen du. Etorkizuneko irakasleek haur-hezkuntzako testuinguruetan gertatzen diren fenomenoak ulertu behar dituzte, ez soilik zer gertatzen den identifikatuz, baita zergatik gertatzen den eta parte-hartzaileek egoera horiei zer esanahi ematen dieten aztertuz ere. Horregatik, **ikuspegi interpretatibo eta konstruktibista** hautatu da, errealitate pedagogikoa pertsonen esperientzien, harremanen eta testuinguruaren bidez ulertzen laguntzen duelako. Informazioa biltzeko, behaketa eta elkarrizketa erabiliko dira. Bi teknikak aukera ematen dute eskola-errealitatearekin zuzeneko harremana izateko: behaketaren bidez eguneroko praktikak eta interakzioak aztertzen dira, eta elkarrizketaren bidez profesionalen, familien edo bestelako eragileen ikuspegiak eta esperientziak ezagutzen dira. Horrela, ikasleek lehen eskuko informazioa eskuratzen dute eta ikerketa-prozesu baten oinarriak praktikan jartzen dituzte.

Era berean, lanak **triangulazioaren** printzipioa txertatzen du, behaketetatik, elkarrizketetatik eta dokumentazio-iturrietatik lortutako informazioa kontrastatuz. Horrek informazioaren fidagarritasuna handitzen du eta fenomeno bera hainbat ikuspegitatik aztertzei aukera ematen dizue, azterketa sakonagoa eta kritikoagoa sustatuz.

Bildutako informazioa aztertzei, **analisi tematikoa eta kategorizazio-sistema** erabiliko dituzue. Horien bidez, informazioan agertzen diren ereduak, gai nagusiak eta esanahiak identifikatu, antolatu eta interpretatuko dituzue. Prozesu horrek informazioa deskribatzetik harago joatea ahalbidetzen du, datuetan oinarritutako azalpenak eta ondorio arrazoituak eraikiz.

Azken batean, planteamendu metodologiko honek eskola-errealitatea zuzenean ezagutzeko aukera ematen dizue, **hezkuntza-testuinguruetakoa fenomenoak ikerketa-prozesu sistematiko baten bidez aztertuz**. Horrenbestez, etorkizuneko hezitzaile gisa beharrezkoak izango dituzuen gaitasun profesionalak garatzen laguntzen du: **behatzea, galdetzea, informazioa modu kritikoan aztertzea, ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzea eta lortutako ezagutzak modu argi eta arrazoituan komunikatzea**.

4. LAN-FASEAK

Hauek dira ikerketan oinarritutako ikaskuntzan jarraituko dituzuen faseak:

- (1) Jakin-minatik abiatuta, galdera eragileak formulatzea.
- (2) Behaketa eta elkarrizketan oinarritutako ikerketa diseinatzea eta informazioa biltzea.
- (3) Dokumentazioaren eta informazioaren azterketa eta triangulazioa.
- (4) Ezagutzen eraikuntza: emaitzen azterketa, interpretapena, justifikazioa.
- (5) Ondorioak ateratzea eta aurrekari bibliografikoekin lotzea.
- (6) Eraikitako ezagutzen komunikazioa eta defentsa dialogatua.

Prozesua jakin-minetik abiatuko da. Lehenengo fasean, lan-talde bakoitzari esleitu zaizkizuten galdera eragileetatik abiatuta, gaiaren inguruan zer jakin nahi eta behar duzuen hausnartuko duzue eta galdera gehigarriak formulatuko dituzue. Ikerketa ororen abiapuntua galdera esanguratsu bat da; horregatik, **zuen aurre-ezagutzak, bizipenak eta interesak abiapuntu hartuta, fenomenoak hobeto ulertzen lagunduko duten galderak sortuko dituzue.**

Jarraian aurkituko dituzue lauhileko honetako irakasgaiekin lotura duten eta zuen ikerketaren abiapuntu izan daitezkeen galdera eragileak (2. TAULA).

2. TAULA. Galdera Eragileak.

IKTak HAUR HEZKUNTZAN

- Teknologia digitala Haur Hezkuntzan: baliabide ala ikaskuntza-ingurune? Zein leku eta erabilera pedagogiko dute baliabide eta eduki digitalek hezkuntza-praktikan?
 - Programatu aurretik pentsatu: nola ulertzen da pentsamendu konputazionala eta nola lantzen da Haur Hezkuntzan?
 - Nolakoa da eskolan eta gelan haurren eguneroko bizitza? Nolakoa da helduena? Ze baliabide eta tresna erabiltzen dira hau jaso, kontatu eta komunitatearekin partekatzeke?
 - Zeintzuk dira Haur Hezkuntza ulertzeko oinarri pedagogikoak? Non eta nola ikusten da hauen presentzia eskola eta gelaren egunerokotasunean (rutinetan, harremanetan, komunikatzeko moduetan, ...)?
 - Haur Hezkuntzaren helburuak nola programatzen dira (jarduera, ebaluazioa, ...) eta eramaten dira gelara? IKTen presentzia dago, zein da?
 - Ze metodologiak proposatzen dira eta hauek nola bermatzen dituzte HHren helburuak? Nola gauzatzen dira eskola eta gelaren egunerokotasunean? IKTen presentzia dago? Zein, nola?
-

GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

- Zenbateraino eta nola lantzen da Espazioa eta Geografia ikasgelan?
- Zenbateraino eta nola lantzen dira nozio sozialak eta baloreak?
- Zenbateraino eta nola lantzen da Denbora eta Historia ikasgelan?
- Zein da gizarte ezagutzaren barnean lehenesten den egiturazko aldagaia? Zergatik? Nola?

HAURTZAROAREN PSIKOLOGIA

- Nola laguntzen dugu haurrek autonomo izaten, eta noiz laguntzen diegu gehiegi?
- Nola ikasten dute haurrek beste haurrekin harremanak izaten?
- Jolasten ari direnean, zer ari dira benetan ikasten haurrak?
- Nola eraikitzen da haur baten eta hezitzailearen arteko konfiantzazko harremana?

KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA II

- Familiekin komunikazioa. Zein zailtasun dituzte Haur Hezkuntzako irakasleek familiekin komunikatzerako orduan eta nola egiten die aurre?
- Teknologia eta komunikazio profesionala. Zein eragin izan dute erreminta digitalek Haur Hezkuntzako irakasleen komunikazio profesionalean?
- Telefonoz deitzeari beldurra. Irakasleen artean telefono bidezko komunikazioa saihesten da? Zein faktorek azaltzen dute?
- Gazteleraren eragina euskararen ikaskuntzan. Ba al du gaztelerak eraginik Haur Hezkuntzako umeen euskarari? Nola erantzuten diete irakasleek horri?

Galdera horiei erantzuteko, ikerketa kualitatibo esploratzaile baten logika jarraituko duzue. Horrek esan nahi du ez duzuela errealitatea neurtu edo kuantifikatu behar izango, baizik eta hezkuntza-testuinguruetan gertatzen diren fenomenoak sakonago ulertu. Horregatik, bigarren fasean, **behaketa eta elkarrizketa erabiliko dituzue galdera eragileen inguruko informazioa biltzeko**. Horiek izango dira **ondoren zehaztuko dituzuen eta azterketarako erabiliko dituzuen kategorien ardatza**. Behaketaren bidez, haur-hezkuntzako eguneroko praktikak, harremanak edo egoerak, besteak beste, aztertuko dituzue; elkarrizketaren bidez, berriz, pertsonen esperientziak, iritziak eta interpretazioak ezagutuko dituzue. Horrela, ikertutako errealitatera zuzenean hurbilduko zarete.

Lan hau ikuspegi interpretatibo eta konstruktibista batetik garatuko duzue. Horrek esan nahi du helburua ez dela soilik zer gertatzen den deskribatzea, baizik eta gertatzen denari zer esanahi ematen dioten pertsonen ulertzea. Horregatik, hirugarren fasean, **bildutako**

informazioa (elkarrizketan eta behaketan) eta dokumentazio-iturrietatik lortutakoa aztertuko dituzue, iturri desberdinetako informazioa alderatuz eta kontrastatuz.

Horretarako erabiliko duzue **triangulazioa**. Behaketetatik, elkarrizketetatik eta dokumentazio-iturrietatik lortutako informazioa elkarren artean kontrastatuko duzue, fenomenoak ikuspegi bakar batetik ez ulertzeko. Modu horretan, zuen interpretazioak sendoagoak, aberatsagoak eta fidagarriagoak izango dira.

Laugarren fasean, **bildutako informazioa analisi tematikoaren eta kategorizazio-sistemaren bidez aztertuko duzue**. Hau da, informazioan agertzen diren ideia nagusiak, ereduak eta gai komunak eta bat ez datozenak identifikatuko dituzue, **informazioa modu antolatuan interpretatzeko**. Fase honetan ezagutza eraikitzen hasiko zarete: emaitzak azalduko dituzue, haien esanahia interpretatuko duzue eta zuen interpretazioak datuetan oinarrituta justifikatuko dituzue.

Bildutako informazioa ez duzue modu isolatuan aztertuko; aitzitik, dokumentuetatik, behaketetatik eta elkarrizketetatik lortutako informazioa antolatu eta lotuko duzue. Horretarako, abiapuntu gisa erabiliko dituzue hasieran definitutako kategoriak, hau da, zuen galdera eragileetatik eta ikerketaren helburuetatik eratorritako kategoriak. Hala ere, analisi-prozesuan zehar irekita egon beharko duzue informazioan agertzen diren ideia, gai edo ikuspegi berriak identifikatzeko; horiek izango dira kategoria emergenteak. Beraz, zuen lana ez da soilik aurreikusitako kategoriak aplikatzea, baizik eta bildutako informazioak iradokitzen dituen elementu berriak txertatuz **kategoria-sistema** aberastea eta osatzea. Horrela, behaketa eta elkarrizketen diseinuan aurreikusitako kategoriak izango dira analisiaren ardatza, baina ikerketa-prozesuak berak ere aukera emango dizue errealitatearen konplexutasuna hobeto jasotzeko kategoria berriak sortu eta fintzeko.

Bosgarren fasean, **ateratako emaitzetatik ondorioak formulatuko dituzue, eta ondorio horiek ikerketaren hasieran aztertutako aurrekari bibliografikoekin lotuko dituzue**. Horrela, zuen aurkikuntzak lehendik dagoen ezagutzarekin elkarrizketan jarriko dituzue, antzekotasunak, desberdintasunak eta ekarpen berriak identifikatuz.

Azkenik, seigarren fasean, **eraikitako ezagutza komunikatu eta defendatu egingo duzue**. Horretarako, zuen emaitzak eta ondorioak biltzen dituen bideo bat sortuko duzue, nahi duzuen formatuan. Ondoren, norbanako defentsa dialogatuan, irakasle-taldeak zuetako bakoitzari bat edo bi galdera eginda, ikerketa-prozesuan hartutako erabakiak, egindako interpretazioak eta ateratako ondorioak azaldu eta arrazoituko dituzue.

5. AURREIKUSITAKO ENTREGAGAIAK

K3an zehar garatuko dituzuen jarduerak graduan aurreikusitako hainbat konpetentzia lantzeko aukera emango dizute. Alde batetik, M1 konpetentzia garatuko duzue **galdera eragileak formulatuz, behaketa eta elkarrizketak diseinatu nahiz gauzatuz, bildutako datuak aztertuz**

eta emaitzen txostena eginez. Bestetik, M2 konpetentzia landuko duzue **aurre-iritziak eta aurrekari bibliografikoak aztertuz, testuinguru soziolinguistiko eta kulturalen eragina identifikatuz, eta lortutako emaitzetatik ondorioak ateraz zein defendatuz**. Era berean, M3 konpetentzia garatuko duzue **informazio-iturriak eta Adimen Artifizialeko tresnak modu kritikoan erabiliz, bilaketa bibliografikoak eginez, informazioa triangulatuz eta emaitzak txostenaren nahiz bideoaren bidez komunikatuz**. Azkenik, M4 konpetentzia indartuko duzue **ahozko eta idatzizko komunikazioaren bidez, elkarrizketak eginez, txostena idatziz, bideoa prestatuz eta defentsa dialogatuan parte hartuz**. Horrela, ikerketa-prozesuak aukera emango dizue hezkuntza-errealitatea ulertzeaz gain, etorkizuneko irakasle gisa beharrezkoak izango dituzuen gaitasun profesionalak garatzeko (3. TAULA).

3. TAULA. Zeregin Nagusiak.

	K3ko Konpetentziak	Zeregin nagusiak
M1	Haurren egunerokotasuna behatu, datuak bildu eta aztertuz, errealitate pedagogikoa ulertzeko eta alfabetizazio zientifikoa garatzeko gaitasuna eskuratzea.	Galdera eragileak formulatzea; behaketa eta elkarrizketa diseinatzea; datuak biltzea; triangulazioa; emaitzen txostena.
M2	Harremanek eta testuinguru soziolinguistiko zein kulturek haurren garapenean eta ongizatean duten eragina ulertu, balioetsi eta sustatzeko estrategiak proposatzea.	Aurre-iritziak eta aurrekariak aztertzea; testuinguruen eragina identifikatzea; emaitzak interpretatzea eta ondorioak formulatzea; defentsa dialogatua.
M3	Informazio- eta komunikazio-baliabideak modu kritikoan erabiltzea, ezagutza eskuratzeko, ikertzeko eta lankidetzan aritzeko.	Bilaketa bibliografikoa; informazio-iturriak eta AA tresnak kritikoki erabiltzea; triangulazioa; txostena eta bideoa prestatzea.
M4	Informazio- eta komunikazio-baliabideak modu kritikoan erabiltzea, ezagutza eskuratzeko, ikertzeko eta lankidetzan aritzeko.	Elkarrizketak egitea; txostena idaztea; bideoaren komunikazioa; defentsa dialogatua.

Hauek dira K3 lan modularren entregagaiak, taldeka edo indibidualki egin beharko dituzuenak:

- Aurre-iritziak, bizipenak eta aurrekari bibliografikoak (2 orr.)
- Katgoria-sistema, behaketa-plana eta erregistroaren diseinua
- Elkarrizketarako gidoia
- Behaketa-erregistroaren oharra
- Elkarrizketaren audioa eta transkribapena
- Emaitzen txostena (alderatzea, interpretatzea, triangulatzea: 4-5 orr.)
- Bideoaren (emaitzen eta ondorioen) aurkezpena
- Defentsa dialogatua

K3 Aste Modularrean hasiera emango diogu ibilbide honi. Aste horretan landuko ditugun gaien eta zereginen artean, lehenik, esleituko zaizkizuten galdera-eragileen inguruan hausnartzea eskatuko dizuegu, horren inguruko jakin-mina pizten dizuen bestelako galdera-eragile osagarriak identifikatuz. Ondoren, horien inguruko **aurre-iritziak eta bizipenak** partekatzeke aukera izango duzue. Horiek ere taldeka idatziz jasotzeko aukera izango duzue.

Jarraian, aste modularrean, bilaketa bibliografikoak nola egin behar diren gogoraraziko dizuegu. Horiek praktikatzeko aukera izango duzue, *Perplexity* eta *Google Scholar Labs*-en bidez, **sortutako galdera-eragile guztien inguruko aurrekari bibliografikoak** ezagutzeko. Adimen Artifiziala erabiltzen duzuen jardueretan erabilera aitortu beharko duzuela beti, zein tresna eta zertarako erabili duzuen entregagaian bertan zehaztuz.

Aurre-iritzia, bizipenak eta aurrekari bibliografikoak, AAren erabileraren aitortzarekin batera, jasoko dituen eta gehienez 2 orrialde izango dituen dokumentua igo beharko duzue K3ko eGelara.

K3 Aste Modularrean zehar ikerketan oinarritutako metodologia, oinarriak, eta bere pausuak, besteak beste, azalduko dizkizuegu. Halaber, informazioaren azterketaren ardatza izango den kategorizazio-sistema azalduko dizuegu eta esleitu zaizuen galdera eragilearekin lotura izango duen kategoria-sistemaren lehenengo zirriborroa orrazten lagunduko dizuegu. Aldez aurretik zehaztutako kategoria-sistema deduktibo honen arabera behaketa-erregistroa eta elkarriketen gidoia sortuko duzue. Ondoren jasotako informazioaren irakurketatik aurre ikusi ez ditugun kategoriak azaleratu daitezke. Horrela balitz, horiek kategoria-sisteman txertatuko dituzue, betiere, aldez aurretikoak edo emergenteak diren zehaztuz.

Kategorizazio-sistemaren zirriborro hori, ondoren diseinatuko dituzuen behaketa-plana, behaketa-erregistroaren txantiloia eta elkarriketaren gidoia, tutorearekin izango duzuen bileran egokitu eta tutore bakoitzaren eskakizunetara moldatuko dituzue, aste modularren bukaeran K3ko eGelan entregatzeko. Praktikan zaudeten bitartean, taldekide bakoitzak behaketa-erregistroaren txantiloian oharrak jaso, elkarriketa egin eta egindako elkarriketaren audioaren transkribapena egin (TurboScribe, WhoScribe, Whisper Transcript, edo Copilot-en laguntzarekin) eta praktiken bueltan entregatu beharko ditu.

Informazio-bilketa indibidualki egingo den arren, informazioaren azterketa taldean gauzatuko da. Hori dela eta, taldekide bakoitzak egindako behaketa-erregistroak eta elkarriketa-transkribapenak bilduko dira, taldearen informazio-corpusa osatuz. **Kategorien (aldez aurretikoen eta emergenteen) arabera, behaketetik eta elkarriketetik lortutako informazioa antolatu, interpretatu eta triangulatuko duzue.** Hori egiten lagun eta gidari izango duzue K3ko tutorea. Formazio-aldian zehar K3ko tutorearekin izango duzuen tutoretzan emaitzen txostenean ordura arte egindakoaren inguruko zalantzak argitu eta argibideak emango dira; ez, ordea, idatzizko feedbackarik edo zuzenketarik. Emaitzen idatzizko txostenak gehienez lauzpabost orrialde izango ditu eta K3ko eGelan entregatuko duzue.

Ondorioak egiteko, emaitza nagusiak identifikatu, haien esanahia interpretatu eta aurrekari bibliografikoekin lotu beharko dituzue. **Emaitzak eta ondorioak, zuek aukeratutako formatua eta bost minutu inguruko iraupena izango duen bideo** batean jasoko dituzue. K3ko eGelan entregatu eta ikastalde osoarekin ikuskatuko dugu.

Bideoa taldean aurkeztu eta elkarrekin ikusi ondoren, **defentsa dialogatuaren** txanda iritsiko da. Une horretan, tutoreak ikerketa-prozesuari lotutako galdera bat edo bi egingo dizkio taldekide bakoitzari. Galderak hainbat gairi buruzkoak izan daitezke, hala **nola egindako lanari, jarraitu duzuen prozesuari, informazioa nola bildu duzuen, datuak nola aztertu eta triangulatu dituzuen edo lortutako emaitzak aurrekari bibliografikoekin nola lotu dituzuen**. Helburua ez da ikasitakoa buruz errepikatzea, baizik eta ikerketa-prozesuan parte hartu duzuela erakustea, hartutako erabakiak arrazoitzea eta eraikitako ezagutzaren inguruan hausnartzeko eta elkarriketatzeko gaitasuna erakustea.

6. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA ETA KRONOGRAMA

Ebaluatzeko bi modalitate egongo dira: etengabeko ebaluazioa (lehenetsitakoa) eta azken ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko, K3an parte hartzen duten lau irakasgaietan ebaluazio mota hau aukeratu beharko da. Ikasgai batean etengabeko ebaluazioari uko egiten badiotzue, azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraituko duzue K3 moduluko ebaluazioan.

Azkenik, moduluko akordio-gidan jasotakoari jarraituz, gogorarazi nahi dizuegu **lauhileko honetan 2. mailako hiru irakasgaitan baino gutxiagotan matrikulatuta dauden ikasleek ez dutela K3 modulua egin beharko**. Era berean, K3 honen ezaugarriak direla-eta, **Practicum I baliozkotua duten ikasleek ere ez dute parte hartu beharko**. Izan ere, lan honetako jarduera eta entregagai nagusiak praktikaldian zehar egingo dituzuen behaketekin, elkarriketekin eta bertan jasoko duzuen informazioarekin lotuta daude zuzenean.

Etengabeko ebaluazioa


Hasieran binaka edo hirunaka antolatuko zarete, eta ondoren talde horiek ausaz elkartzeko, lau edo bost ikasle zosaturako lan-taldeak eratuko ditugu K3a garatzeko.

Prozesu formatiboan zehar bi unetan talde-lanetan eskuratu eta garatutako zeharkako konpetentziak zuen buruarengan eta gainerako taldekideengan ebaluatzeko aukera izango duzue. Autoebaluazio eta koebaluazio horiek K3ko eGelaren bidez bi alditan beteko dituzue: (1) azaroaren erdialdean; eta, (2) abenduaren erdialdean. Lehenengo aldi hori formatiboa eta bigarrena sumatiboa izango da. Hortaz, lehenengoa, zuen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaz jabetzeko asmoa izango du; bigarrean, berriz, autoebaluazioen eta koebaluazioen batez-besteko notak K3an lortuko duzuen azkenengo kalifikazioan % 15eko pisua izango du.

Kasu batean zein bestean egindako autoebaluazioak eta koebaluazioak anonimoak izango dira. Taldekideei horien batez-bestekoa, indarguneak, ahulguneak eta horiek hobetzeko proposamenaren berri emango dizue tutoreak izango duzuen tutoretzan.

Jarraian ikus dezakezue etengabeko ebaluazioan zehar egin beharko dituzuen zereginen banaketa (4. TAULA) eta horietako bakoitzak azken kalifikazioan izango duen pisua (1. IRUDIA).

1. IRUDIA. Etengabeko Ebaluaziorako Irizpide eta Portzentaiak.



Hizkuntza Gaitasuna

Zuen taldeko zein lan indibidualetan hizkuntzaren ahozko eta idatzizko adierazpidean akats nabarmenak agertzen badira, horiek zuzentzea eskatuko zaizue. **Ulgarritasun eta zehaztasun 10 hutsetik gora gertatzen direnean, testuak itzultzeagatik edo euskarazko adierazpide okerra erabiltzeagatik, ez da lanik zuzenduko.**

APA7 Arauak Eta Adimen Artifizialen Erabilera Arduratsua

K3an APA7 zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko dituzue. Arau horiek bete ezean, plagioaren susmoa edo iruzurraren zantzua egotzi ahalko zaizue. EHUren *Adimen Artifizial Sortzailea Erabiltzeko Printzipio eta Gomendioak* dokumentuaren ildotik, adimen artifizial sortzaileko tresnak erabil daitezke, baldin eta erabilera gardena, etikoa, arduratsua eta ikaskuntza-helburuekin bateragarria bada. K3an **Adimen Artifizial** sortzailea (Perplexity, Google Scholar LABS, Copilot) **tresna lagungarri gisa erabil dezakezue, baina ez zuen pentsamenduaren, arrazoiketaren, behaketaren, interpretazioaren edo ekarpen pertsonalaren ordezkari gisa.** AA erabiliz gero, aitortu behar duzue. Aitortzarik egingo ez bazenute edo zuen ekarpen pertsonala ordezkatzeko balu, K3a ez gaituztekariko du.

4. TAULA. K3ko Zereginen Banaketa eta Kronograma.

Astea	Portzentaia	Ardura	Atazak eta Entregagaiak	Helburua				Fasea						Data
				M1	M2	M3	M4	I	II	III	IV	V	VI	
1														
2	% 20a		K3 Aste Modularra											Ira. 14-18
		T	Aurre-iritziak, bizipenak eta aurrekari bibliografikoak (2 orr.)	✓	✓	✓		X						Ira. 16
		T	Kategoria-sistema, behaketa-plana eta erregistroaren diseinua	✓					X					Ira. 18
		T	Elkarriketarako gidoia	✓					X					Ira. 18
					Practicum I									
8	% 10a	I	Behaketa-erregistroaren oharrak	✓		✓			X					Urr. 30
	% 10a	I	Elkarriketaren audioa eta transkribapena	✓		✓	✓		X					Urr. 30
9	*	I	Autoebaluazioa eta koebaluazioa (I)											Aza. 2-6
10		T	Tutorearekin tutoretza orduetan elkartu	✓	✓		✓			X				Aza. 9-13
11	% 20a	T	Emaitzen txostena (4-5 orr.)	✓	✓	✓	✓			X	X		X	Aza. 27
12														
13														
14	% 20a	T	Bideoaren (emaitzen eta ondorioen) aurkezpena		✓	✓	✓				X	X	X	Abe. 10-11
	% 20a	I	Defentsa dialogatua		✓		✓				X	X	X	
15	*	I	Autoebaluazioa eta koebaluazioa (II)											Abe. 14-18

Oharrak. Epez kanpo lanik ez da jasoko. K3ko helburuak hauek dira: **M1.** Haurren egunerokotasuna behatu, datuak bildu eta aztertuz, errealitate pedagogikoa ulertzeko eta alfabetizazio zientifikoa garatzeko gaitasuna eskuratzea; **M2.** Harremanek eta testuinguru soziolinguistiko zein kulturalak haurren garapenean eta ongizatean duten eragina ulertu, balioetsi eta sustatzeko estrategiak proposatzea; **M3.** Informazio-eta komunikazio-baliabideak modu kritikoan erabiltzea, ezagutza eskuratzeko, ikertzeko eta lankidetzan aritzeko; **M4.** Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna garatzea, gutxienez B2 mailara iritsi arte. Lanaren faseak hauek dira: **(1) jakin-minatik abiatuta, galdera eragileak formulatzea; (2) behaketa eta elkarriketan oinarritutako ikerketa diseinatzea eta informazioa biltzea; (3) dokumentazioaren eta informazioaren azterketa eta triangulazioa; (4) ezagutzen eraikuntza: emaitzen azterketa, interpretapena eta justifikazioa; (5) ondorioak ateratzea eta aurrekari bibliografikoekin lotzea; (6) eraikitako ezagutzen komunikazioa eta defentsa dialogatua.** Bideoaren entregagaien emaitzak eta ondorioak formatu askean komunikatu dira. Entregagai guztiak K3ko eGelaren bidez egingo dira, zehaztutako datetan (23:59 epemuga). Taldeko entregagaiak (T) taldekide bakar batek igoko ditu eGelara. Norbanako entregagaiak (I), indibidualki igoko dituzue. Transkribapena egiten laguntzeko Copilot erabili dezakezue. Adimen Artifizialaren edozein erabilera, dagokion jardueraren entregagaien bertan aitortu beharko duzue. 10. astean tutorearekin izango duzun tutoretza adosteko, tutorearekin harremanetan jarri behar zarete emailaz; tutoretzan emaitzen txostenean ordura arte egindakoaren inguruko zalantzak argitu eta argibideak emango dira, ez ordea idatzizko feedbackarik edo zuzenketarik. Bideoen aurkezpen eta defentsa dialogatuak 10:00-14:00 bitartean izango diren bi egunetan, K3an parte hartzen duten irakasgaietan ez da eskolarik izango; ikastetxearen antolakuntza irakasgaien, bai, ordea. Aurkezpen eta defentsa dialogatuen ordena aurreko astean jakinaraziko zaizue. Taldearen aurkezpenean ez ezik, gainerako taldeen aurkezpenetan egotea derrigorrezkoa da.

* Autoebaluazioaren eta koebaluazioaren (II) lortutako batez besteko notak K3an lortuko duzun azken kalifikazioaren % 15eko pisua izango du. Gainerako % 85a, hemen zehaztutako entregagaien notei dagokio. Autoebaluazioa eta koebaluazioa (I) asmo formatiboa du, talde-barneko dinamika ezagutuz eta bideratuz.

Modulu-lanaren kalifikazioa modulu osatzen duten ikasgaiaren kalifikazioaren bi puntu izango da (% 20a). Lana gaindituta baldin badago eta ikasgaia gainditu gabe, **lanaren nota gorde egingo da irakasgaiak gainditu arte, bi ikasturtetan**. Etengabeko ebaluazioko ikasleek lana gainditzeko ez baduzue, hurrengo deialdirako entregatu beharko duzue **suspenditutako atala. Modulua giltza den ikasgaietan, ikasleak ikasgai hori suspendituta izango du modulua gainditu arte**.

Azken ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioan parte hartu ez duten ikasleek moduluaren ebaluazioa azterketa-egun ofizialean egin beharko dute. Horretarako, K3ko koordinatzailearekin bildu beharko dute, eta bertan irakasle-taldeak adostutako ebaluazio-prozedura eta edukiak azalduko zaizkie. Ikaslearen ardura izango da K3ko koordinatzailearekin harremanetan jartzea eta bilera hori egitea.

7. ERREFERENTZIAK

- Angrosino, M. V. (2007). *Doing ethnographic and observational research*. SAGE.
- Antonio-Agirre, I., Azpiazu, L., eta Goñi, E. (2024). *Haur eta Lehen Hezkuntzan informazioa biltzeko tresnak*. EHU.
- Bisquerra, R. (Koord.). (2019). *Metodología de la investigación educativa* (6. ed.). La Muralla.
- Braun, V., eta Clarke, V. (2006). Using thematic analysis in psychology. *Qualitative Research in Psychology*, 3(2), 77-101. <https://doi.org/10.1191/1478088706qp063oa>
- Brew, A. (2003). Teaching and research: New relationships and their implications for inquiry-based teaching and learning in higher education. *Higher Education Research eta Development*, 22(1), 3-18. <https://doi.org/10.1080/0729436032000056571>
- Brinkmann, S., eta Kvale, S. (2015). *InterViews: Learning the craft of qualitative research interviewing* (3. ed.). SAGE.
- Creswell, J. W., eta Poth, C. N. (2024). *Qualitative inquiry and research design: Choosing among five approaches* (5. ed.). SAGE.
- Díaz-Bravo, L., Torruco-García, U., Martínez-Hernández, M., eta Varela-Ruiz, M. (2013). La entrevista, recurso flexible y dinámico. *Investigación en Educación Médica*, 2(7), 162-167. [https://doi.org/10.1016/S2007-5057\(13\)72706-6](https://doi.org/10.1016/S2007-5057(13)72706-6)
- Flick, U. (2012). *Introducción a la investigación cualitativa* (3. ed.). Morata.
- Galende, N., Ferrero, M., eta Comino, P. (2026). *Ikerketan oinarritutako ikaskuntza Garapenaren Psikologia Eskola Adinean irakasgaiak*. EHU.
- Healey, M., eta Jenkins, A. (2009). *Developing undergraduate research and inquiry*. Higher Education Academy.

- Miles, M. B., Huberman, A. M., eta Saldaña, J. (2020). *Qualitative data analysis: A methods sourcebook* (4. ed.). SAGE.
- Rodríguez-Gómez, G., Gil-Flores, J., eta García-Jiménez, E. (1996). *Metodología de la investigación cualitativa*. Aljibe.
- Saldaña, J. (2021). *The coding manual for qualitative researchers* (4. ed.). SAGE.
- Tójar, J. C. (2006). *Investigación cualitativa: Comprender y actuar*. La Muralla.
- Urkidi, P., Ormazuri, G., de las Cuevas, C., eta Bujan, K. (2004). *Practicum behaketarako tresna*. EHU.